

2015ean Udalak izango dituen diru-sarreretako 100 euro bakoitzeko

- **49,64** datoz **udaleko zerga-arlotik** (diru-sarreraren I, II eta III. kapituluak).
- **42,49** datoz beste erakunde edo administrazio batzuen **diru-laguntza arruntetatik**, horietatik 40,90 datoz **Udalak Finantzatzeko Foru Funtsetik**.
- **0,76** lortzen dira **ondare diru-sarreretatik**.
- **0,65** Udalak espero du lortzea **ondare saltzetik edo hirigintza karga eta aprobetxamenduen diru-sarreretatik**.
- **0,69** lortzen dira inbertsioak finantzatzeko jasotako **kapital diru-laguntzetatik**
- **0,29** datoz **langileen aurrerakinak itzultzetik** eta beste kontzeptu batzuetatik.
- **3,39** lortuko genituzke “teorian” **zorpetzearen** bidez, hau da, sinatu beharreko mailegu berriak, nahiz eta, benetan, espero dugun ez sinatzea mailegurik.

2015ean Udalak 100 eurotik zenbat eta zertan gastatuko duen

- **32,79 €** erabili dugu **pertsonal gastuei** aurre egiteko, eta hor sartzen dira Udalean egitekoak betetzeko liberaturik dauden udalkideen ordainketak.
- **31,63 €** behar dugu **udal zerbitzuen funtzionamendutik** sortzen diren gastu arruntei erantzuteko.
- **3,17 €** dira **banketxeekin** hartutako konpromisoak betetzeko (**maileguen interesak eta amortizazioak**).
- **15,49 €** dira **transferentzia arruntak edo diru-laguntzak** finantzatzeko; horietatik **8,11** euro dira udalen arteko zerbitzuen kuotak eta Iturbide Egoitzaren defizita (azken hori berez udal zerbitzua da).
- **13,59 €** dira **inbertsioen zuzeneko exekuzioa** finantzatzeko.
- **2,49 €** dira **beste administrazio edo erakunde batzuek** egindako inbertsioak diruz lagundu edo elkarrekin finantzatzeko.
- **0,84 €** erabiltzen da finantza aktiboak erosteko, hala nola, **langileei aurrerakin itzulgarriak emateko** (diru-sarreraren kopuru berdina) eta **Garaia S.Coop.ren kapitalari ekarpena** egiteko.